

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkuraren akta

Ohiko bilkura

Data: 2020ko abenduaren 19a, asteazkena.

Ordua: 20:00.

2021eko urtarrilaren 20ko bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ PNV) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), osasun-arazoak direla-eta.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bilkuran izan da, idazkari gisa.

Saioa alde zuzenetik eta arauzko publikizitatearekin deitu da, eta honako hau izan da gai-zerrenda:

Gai-zerrenda

1. Onestea 2020ko azaroaren 11ko aurreko ohiko bilkurako akta.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea.**
 - 3.1. Daniel Salvador zinegotzi ez-atxikiaren mozioa, merkataritza-sozietateari atxikitzea eta EH Bildu eta EAJ-PNV taldeen zuzenketak ezesteari buruzkoa.
 - 3.2. Arabako Errioxako Urkideztari buruzko erabakia eta eskualdeko merkataritza-sozietate publikoa eratzeari buruzkoa.
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.**
5. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea.**
 - 5.1. EUDELeK BJKN eta EAErekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena, ustezko zaurgarritasuna antzemateari buruzkoa, familia-etxebizitza ateratzea dela kausa.
 - 5.2. 2020ko Euskararen Nazioarteko Egunaren adierazpena. Euskara aurrerabidea da.
6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.**
 - 6.1. Mendebaldeko Sahararen su-etengabeko amaieraren aurrean erakundearen adierazpena.
 - 6.2. 2021eko abenduaren 31n azkentzen den kreditu-kontuaren banku-kontratua.
 - 6.3. Hurrengo urtean onesteko aurrekontuko diren arau-ekimenak buruzko plan arauemailea.

Azkenengo puntua) Galde-eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta gai-zerrendarekin bat etorriz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2020ko azaroaren 11ko aurreko ohiko bilkurako akta

Idazkari jn.: Mezu elektroniko bidez akatsa antzeman da 4.2 gaian (“kirol-instalazioen zerbitzuak” kontratuaren barruan 2020ko denboraldiko udal-igerilekuaren zerbitzua likidatzea).

Honako hau dio: berroreka finantzarioak 59.311,45 euroko zenbateko kalte-ordaina ordaintzea dakar. Honako hau esan behar du: berroreka finantzarioak 58.446,45 euroko zenbateko kalte-ordaina ordaintzea dakar.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2020ko azaroaren 11ko aurreko osoko bilkurako akta dagokion oharrekin.

Aldeko 9 (bederatzi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Abstentzioak 1 (bat): Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Zinegotzia abstenitu egin da osoko bilkuran parte hartu ez zuelako, eta bozkatu den aktan erregistratu da.

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkariak, alkate-udalburuak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenen berri: 249/2020tik 270/2020ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

3. Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea.

3.1 Daniel Salvador zinegotzi ez atxikiaren mozioa, merkataritza-sozietateari atxikitzea eta EH Bildu eta EAJ-PNV taldeen zuzenketak ezesteari buruzkoa.

Alkate jaunak 2020ko azaroaren 11ko bilkurako 4.1 gaia irakurri du; xedapenen parte transkribatu da:

“Aurrekariak:

- 1) Daniel Salvador zinegotzi ez-atxikiaren eskaera, merkataritza-sozietateari atxikitzearen gaineko mozioa kentzeari buruzkoa, nahiz eta berak aurkeztu.
- 2) Mozioari zuzenketak egin zizkieten taldeei emandako entzunaldi-epea.
- 3) EH Bildu Oion taldearen iritzia, mozioa kentzearen aurkakoa.
- 4) Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 92. artikulua aplikatu beharrekoa da.

Hau erabaki da:

- 1) Daniel Salvador zinegotzi ez atxikiaren mozioa, merkataritza-sozietateari atxikitzea eta EH Bildu eta EAJ-PNV taldeen zuzenketak ezesteari buruzkoa eguneko gai-zerrendatik kentzea eta mahai gainean uztea, eta eztabaida gaiaren hurrengo bilkurarako uztea”.

Salvador Adán jn. (zinegotzi ez-atxikia): araudiei buruz hitz egiten badugu, hitz egin dezagun udal-araudiez: Bilboko Udalean batzordeak publikoak dira, Vianako Udalak osoko bilkurak grabatzen ditu eta Vitoria-Gasteizko Udalean herritarrek osoko bilkuretan parte har dezakete. Eta Oionen alkateak berak nahi izan duelako kendu genuen mozio bat sartu du. Aurreratzen dut ez dudala eztabaidatuko eta ez dudala bozketan parte hartuko.

Frías Del Val andreak EH Bildu Oion taldearen zuzenketa irakurri du: Arabako Errioxako Urkidetzak datozen asteetan desegiteko asmoa du, eta merkataritza-sozietate bat sortu nahi dute Arabako Errioxa eskualdeko hornikuntza- eta hondakin-urak artatzeko zerbitzua kudeatzeko. Ekintza hori hasieratik kritikatu dugu uraren moduko baliabidearen kudeaketa pribatizatzearen kontra gaudenok. Gainera, proposatutako kudeaketa-ereduari dagokionez oztopo juridikoak zehazten dituzten txostenak daude eta horren bideragarritasuna zalantzan jartzen dute.

Kudeaketan pribatizazio-eredua beharrean beste eredu batzuk daude, uraren kudeaketa erakunde gaituen esku mantentzea ahalbidetzen dute eta kudeaketa horren gainean erabakiak hartzeko erabateko gaitasuna dute. Halaber, gertutik kudeatzea ahalbidetzen dute, beste kudeaketa-eredu batzuk saihestuz, baterakoa, efizientea eta jasangarria den kudeaketaren alde egiten dute, baina benetako helburua uraren kudeaketa zentralizatzea eta kontrolatzea da.

Horregatik guztiagatik, EH Bildu udal-taldeak Oion Si Se Puedek aurkeztutako mozioa ordezkatzeko honako zuzenketa hau aurkeztu du, Arabako Errioxan uraren ziklo osoa kudeatzen duen merkataritza-sozietateari atxikitzeari buruzkoa.

1. Oyón-Oiongo Udalak Arabako Errioxan uraren kudeaketa pribatizatuko duen merkataritza-sozietatea eratzea ezesten du, eta udal hau horri atxikitzea ere.
2. Oyón-Oiongo Udalak ezesten ditu uraren kudeaketaren zentralizazioa eta kontrola dakarten kudeaketa-ereduak eta udal hau URBIDE Arabako Urkidetza berriari atxikitzea ezesten du.
3. Oyón-Oiongo Udalak konpromisoa hartzen du beste kudeaketa-formula batzuk aztertzeko, esaterako zerbitzu-ermandadea eratzea; uraren kudeaketaren kontrol publikoa eta gertukoa bermatuko ditu uraren moduko oinarritzko baliabide baten kudeaketan.

Alkate jaunak Salvador Adánen (zinegotzi ez-atxikia) proposamena eta EAJ-PNV taldearen zuzenketa irakurri ditu.

Inclán jn. (PP): Alderdi Popularraren iritzia zein den azaldu nahi dut.

Alkate jn.: Nire ustez bozeramaile titularrak hitz egin eta taldearen ikuspegia defendatu behar du, bertan baitago.

Inclán jn. (PP): Beste batzuetan ez da arazorik egon. Taldeko hitz egiteko txanda bat dago. Eta gure taldeak erabaki du taldearen ikuspegia nik defendatzea.

Beloqui Unzurrunzaga jn. (PP): Ezin diot hitza eman?

Alkate jn.: Uste dut ez dela egokia. Kasu honetan, bilkuraren garrantziagatik eskatuko dut taldeen bozeramaileek parte hartzeko. EH Bildu Oionen kasuan, noski, ordezeko bozeramaileak parte hartuko du...

Inclán jn. (PP): Hitza ezin delako erabili nire kexa adierazi nahi dut, beste batzuetan baimendu den moduan.

Merkataritza-sozietateari ez atxikitzeko Daniel Salvador Adan zinegotzi ez-atxikiaren mozioari EH Bildu Oion taldeak egindako ordezkapen-zuzenketa bozkatu da. Zuzenketa onesten bada, mozioa indargabetuko da eta ez da bozkatuko.

Aldeko 3 (hiru) boto: Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Aurkako 4 (lau) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) y José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

3 (hiru) abstentzio: Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Salvador Adán jaunak (zinegotzi ez-atxikia) ez du bozketan parte hartu eta bere erabakia abstentzio gisa zenbatu da, idazkariak ohartarazi dion moduan.

Merkataritza-sozietateari ez atxikitzeko Daniel Salvador Adan zinegotzi ez-atxikiaren mozioari EAJ-PNV taldeak egindako ordezkapen-zuzenketa bozkatu da. Zuzenketa onesten bada, mozioa indargabetuko da eta ez da bozkatuko.

Aldeko 6 (sei) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

Aurkako 3 (hiru) boto: Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Abstentzio 1 (bat): Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Salvador Adán jaunak (zinegotzi ez-atxikia) ez du bozketan parte hartu eta bere erabakia abstentzio gisa zenbatu da, idazkariak ohartarazi dion moduan.

Zuzenketa onetsi da, mozioa ezetsi da. Mozioari egindako ordezkapen-zuzenketaren testu osoa transkribatu da:

Aurrekariak:

1. Mozioan erabiltzen diren argudioak proposatzen dituen pertsonaren edo taldearen iritzia baino ez dira; irakurtzean badirudi egia osoa helarazten dela.
2. Proposamenak adierazitakoaren arabera, Arabako Errioxako Urkidetzari atxikitako erakundeei kako-makoz sinestarazten zaie kapital publikoko merkataritza-sozietateak herritarren interesak hobe kudeatuko direla eta autonomia handiagoa izango dela.
3. Gainera, proposamen-egilearen iritziz, ezinbesteko urratsa litzateke kapital pribatua sartzen uzteko. Modu horretan, pribatizaziorantz bidea finkatuko litzateke, baina ezinezkoa da estatutueta zehazten diren gehiengoekin.
4. Helarazi nahi den errealitatetik urrun dago; izan ere, egun Araban herritar erabiltzaileen % 75ak ur-hornikuntza eta hondakin-uren hornikuntzaren zerbitzuak Amvisa sozietate

publikoaren bidez jasotzen ditu, eta horren efikazia eta efizientziak ez du inolako zalantzarik sortzen.

5. Horrenbestez, ez Araban bakarrik, baizik eta Estatuko udalerri askotan uraren kudeaketa-eredua merkataritza-sozietateen bidez egiten da. Eredu hori une honetan abian jarri nahi da gure eskualdean; horrek adierazten du proposamena gai honetan gehiengo den egoerari oso lotuta dagoela.
6. Proposatzen den eredu-aldaketa Urkidetza eratzten duten kideen gehiengoaren erabakiagatik izan da, ezin delako ahaztu kideen % 75era heldu behar dela desegin ahal izateko edo beste erakunde bat bihurtzeko.
7. Ehuneko hori baino gehiago izan da Arabako Errioxako Urkideztaren kasuan, hortaz, herritarren eta haien ordezkarien gehiengoak kudeaketa-eredu horren alde egin nahi dute.
8. Herritarrei ezkutatutako prozesu honetan arabarren interesei iruzur egiten ari zaiela esaten da. Mozioan erabilitako demagogia hori ezin daiteke haratago joan.
9. Demokratikoki aukeratutako herritarren ordezkariak dira erabakiak hartzen dituztenak eta ziurtatu dezaket kasu baten ere ez dela egon sozietate publikoa eratzea erabaki duten udaletan kontrako proposamenik.

10. Udal-autonomia gure demokrazia-sisteman errotuta dago, eta goi-mailako erakunde batek egin ditzakeen gomendioak edozein direla ere, udalak guztiz adituak dira haien herritarrentzako erabakirik onena hartzeko.
11. Mozioan bertan adierazten da tokiko enpresa-entitate publikoa aukera bat dela kudeaketa aurrera eramateko; egun eskualdean dagoena baino eraginkorragoa izateko.
12. Prozesu horretan guztian horretarako beharrezko prozesu bakoitzean hiru urte daramagu aurrera egiten. Urkidetzaren egungo egoerak argi eta garbi konponbidea behar du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea onetsi ondoren, tokiko erakundeen eredia aldatu baitute zerbitzu publikoen kudeaketa-moduen eredura.
13. Horrenbestez, eskualdeko udalen gehiengoak egiten duen proposamena, edozein dela ere kolore politikoa, uraren kudeaketarako merkataritza-sozietatea eratzea da. Ziurrenik, gehiengoa ez da erratuko eta, hortaz, hartzen ari diren erabakia ordezkatzeko eta defendatzeko dituzten herritarren interesentzat onena dela uste dute.
14. Azkenik, adieraztea Oyón-Oiongo Udalak uraren arloan duen kudeaketa hobetu duela, eskualdeko udalerri guztien artean kudeaketa-eredu mankomunatuaren abian jarri zenetik eta sozietate publikoa eratuta eredu hori mantentzen jarraitu nahi dute.

Horregatik guztiagatik, Eusko Alderdi Jeltzaleen udal-taldeak “Oion si puede” taldeak aurkeztutako mozioari honako zuzenketa hau aurkeztu dio:

1. Oyón-Oiongo Udalak udalerriarentzat eta herritarrentzat Arabako Errioxako Eskualdearen kudeaketa-eredu mankomunatu oso positiboa dela uste du; baliabidearen erabilera arrazionalizatzea lortu du eta gure udalerriari horri lotutako puntako instalazioak ematea. Horretarako, uraren ziklo osoan inbertsio garrantzitsuak egin dituzte.
2. Oyón-Oiongo Udalak datorren bilkuran udalerrirako uraren ziklo integralaren kudeaketa-ereduen proposamenak eramango ditu eta eskualdeko eredu mankomunatuaren sartzeko ere, onetsi ditzaten eta egoki irizten dieten izapideak egin ditzaten.

3.2. Arabako Errioxako Urkidetzari buruzko erabakia eta eskualdeko merkataritza-sozietate publikoa eratzeari buruzkoa.

Alkate jaunak erabaki-proposamenaren aurrekariak irakurri ditu.

Salvador Adán jaunak (zinegotzi ez-atxikia) bere iritzia buruzko dokumentua irakurri du. Gaia partaidetza publikorik gabe eta ilun izapidetu da. Eta proposamen onartezin batekin amaitzen da; idazkariaren ezezko txostenarekin. Bastidako idazkariaren kontrako hainbat txosten dituen proposamena da. EAJ-PNVren interesak asebetetzea bilatzen du, Arabako Errioxako herritarren interesen gainetik.

Beloqui Unzurrunzaga jn. (PP): Ez gaude ados proposamenarekin. Gure botoa ezezkoa izango da. Gai hau presaz eta gardentasunik gabe egin da.

Gamarra López Brea jn. (PSE-EE-PSOE): Gure teknikariei galdetu diegu eta aldeko botoa emango dugu.

Frías del Val and. (EH Bildu Oion): 2017ko uztailaren lehen aldiz batzordean Arabako Errioxako Urkidetzaren egoera juridikoaren erregulaziora buruzko erabakiaren gaia jorratu zen.

Batzorde horretan, EH Bildu Oionek idazkariak birmoldaketa horri buruzko alde onen eta txarren txostena egitea proposatu zuen.

Orduan, alkatearen iritzia zen kapital publikoko eta kudeaketa pribatuko merkataritza-sozietate bat eratzea. Beste talde batzuek beste konponbide batzuk proposatu ditugu eta ez dira aztertu eta, are gutxiago, erabaki batera heltzeko negoziatu.

Beste bilkura batean gobernu-taldearen aldeko botoekin merkataritza-sozietate berrira atxikitzeko asmoa bozkatu zen.

Hiru urteren ostean, eta idazkari-kontu-hartzailearen kontrako txostena ezagututa, areto honetan alkate jaunaren honako hitz hauek entzun dira: “Nola eramango dut bilkurara kontrako txostena duen gauza bat?”, “Noren buruan sartzen da?”, “Ez dut ezta bilkurara ere eramango eta pasa dadila pasatu beharrekoa”.

Orain, Arabako Errioxan EAJ-PNVk kontrolatutako uraren kudeaketarako merkataritza-sozietate bati atxikitzea bozka dezagun nahi du, eta denok dakigun moduan kontrako txostenarekin.

Alkate jauna, zenbat balio du zure hitzak? Zer egiten du gai honek eguneko gai-zerrendan? Ohartzen zara ez duzula zure hitza bete eta udalerriko herritar guztiei gezurra esan diezula zure alderdiaren apetak lehenesteko?

Alkate jauna, zure dimisioa eskatzea baino ez zaigu geratzen. Dagoeneko ez duzu hitzik, lehenengo gezurra esan diguzu gai hori osoko bilkurara ekartzean, zure alderdiko aginduei burua makurtuta, eta bigarrena eta larriena, aldeko botoa ematen.

Alkate jn.: Badirudi zuzentzea gezurra esatea dela. Nire ustez, idazkariaren txostena loteslea zen, baina derrigorrezkoa da. Alegia, txostenak egon behar du, baina ez da loteslea. Babesten dugun erabakiak Oiongo udalerriarentzat kalterik txikiena bilatzen du. Uste dut denok ulertzen duzuela ez parte hartzeak, uraren sozietate berriaren parte ez izateak oso egoera ahulean uzten gaituela. Urkidetzako hemezortzi kide horren alde daude. Ez dago udalerririk ez kontzejurik kontrari dagoenik, eta ez da beste kudeaketa-formularik aurkeztu. Urkidetzan Aldundia ere proposatu dugun ekimenaren alde agertu da.

Aurrekariak:

- 1) Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legea onetsi zenean eta gerora Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea onetsi zenean, partzuergoen erregimen juridikoa aldatu zen eta tokiko erakunde izateari utzi zioten eta mankomunitateekin batera zerbitzu publikoen kudeaketa-eredu moduan arautu ziren; aldiz, horiek tokiko erakundeen artean sartzen dira. Labur esanda, partzuergoak ez du tokiko erakunde izaten jarraitzen.
- 2) Aldundiaren txosten teknikoaren arabera, beharrezkoa zen Urkidetzaren Estatutuak berrikustea, edo hala badagokio, zerbitzuaren beste kudeaketa-eredu bat egitea.
- 3) 2017ko uztailaren 19an Guardian egindako bileran Arabako Errioxako Urkidetzaren egungo ordezkariak, alkateak eta batzarretako presidentek sozietate publiko bat eratzea adostu zuten erakunde guztiek uraren zerbitzu publikoen erakunde kudeatzaile baten kide izaten jarrai zezaten eta etorkizuneko erakunde batean ordezkagarritasun berbera izan zezaten. Arabako Errioxako Urkidetzaren egungo ordezkariak jakinarazi zitzaizkien aukera baten alde egiteko erabakia hartu behar zutela.
- 4) Diru publikoko erakunde baten bitartez zerbitzua ematea tokiko erakunde nagusietan aurrera eramandako mendeetako tradizioan oinarritutako erabakia da eta konpromiso eta profesionalizazio handiagoa dakar herritarrentzat; zerbitzua hobetzea ekarriko du.
- 5) Arabako Errioxako Urkidetzaren Batzar Nagusia hogeita bat (21) kidek osatzen dute.

Gaur-gaurkoz erabakia hartu ez duten Udalak Oyón-Oiongoa eta Bastidakoa dira. Foru Aldundiko ordezkariak dagoeneko adierazi zuen Urkideztaren batzarrean Arabako Errioxako udalerrien eta kontzejuen erabakiak errespetatzeko asmoa zuela. Ez dago udalerri, kontzeju edo beste erakunderik merkataritza-sozietate publikoaren ekimenaren kontra agertu denik. Are gehiago, erakunde bat ere ez da beste proposamenen alde agertu.

- 6) Ermandadearen proposamena oso errespetagarria da, baina ez du inolako babesik.
- 7) Urkideztaren beste erakunde batera atxikitze proposamenak ez du babesik. Salvador Adán jaunaren ekimena izan ezik, Urkideztza Oyón-Oiongo Udalera atxikitzea, ilogikoa da eta ez du oinarri ekonomiko edo juridikorik.
- 8) Egoera horretan udalerriak berak zerbitzua ematea balora daiteke. Horrek laurogeita hamargarren hamarkadara itzultzea dakar: egitura propioa eratzea (langileak, materiala, aplikazio informatikoak...). Horri sareak mantentzearen kostua eta erantzukizuna areagotzea gehitu behar zaizkio. Aukera horrekin ez dira bermatzen eskualdeko integrazioetik egun aprobeztatzen diren ur-baliabideak.
- 9) Gune berdeak mantentzeko eta kaleak garbitzeko kontratuen amaieraren ikerketak hirugarren batekin zerbitzua kontratatzea eramango gintuzke, hots, pribatizatzea.
- 10) Oyón-Oiongo Udaleko bilkurak 2018ko urriaren 10eko bilkuran adostu zuen erabat diru publikoz osatutako merkataritza-sozietatea eratzean parte hartzeko asmoa adieraztea; horren gizarte-helburua izango da uraren ziklo osoa kudeatzea eta jarduketa-esparrua Arabako Errioxako eskualdea izango da.
- 11) 2020ko urriaren 13ko idazkari-kontu-hartzailearen kontrako txostena jaso zen.
- 12) Ingurumen Zuzendaritzaren erantzuna jasota dago Oyón-Oiongo biztanleriak uraren zerbitzu integralera efikazia eta ekonomia gehiagorekin sartzeko artikulazioari buruzko galderari dagokionez. Erantzun horren kontu eman zen abenduaren 2ko batzordean. Eta Lurralde Oreaken Zuzendaritzaren euskarri teknikoari buruzko erantzuna jasota dago Urkideztaren partetik zerbitzuaren koste efektiboa kalkulatzeko eta sozietatearen bidez emandako zerbitzuaren kostu efektiboa kalkulatzeko. Erantzun horren kontu eman zen abenduaren 2ko batzordean.
- 13) Proposatutako erabakia 5etik 10era eta 12. eta 13. aurrekarietan oinarritzen da. Arrazoi horiengatik eta aukera-irizpidea aplikatuta eta proposatutako erabakia bidezkoa dela iritzita.
- 14) Alkatetzaren proposamena.

Hau erabaki da:

1. Hasiera batean onestea 2018ko azaroaren 28ko memoria, erabat diru publikoarekin merkataritza-sozietatea eratze arlo sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioak, sozietatearen estatutuen proiektua eta zerbitzuaren prezioen proiektua Arabako Errioxako Urkideztak aurkeztutako dokumentuekin bat etorrita.
2. Hasiera batean onestea erabaki honen 1. puntuan aipatutako memorian deskribatutako erabat diru publikoarekin eratutako merkataritza-sozietatean parte-hartzea.
3. Arabako Errioxako Urkideztza desegin dadin onestea eta Udaleko ordezkaria gaitzea Urkideztako organo erabakitzaileei hori helarazteko.
4. Erabaki hau Arabako Errioxako Urkideztari jakinaraztea erabaki honetako 1. puntuan aipatutako Estatutuak onesteko, eta Urkideztaren ondarea likidatzeko eta dagokion erabakiak hartzeko.

5. Onestea merkataritza-sozietate berriari ematea orduan Arabako Errioxako Urkideztari eman zitzaizkion aktiboak eta pasiboak; likidatzearen ondorioz, Oyón-Oiongo Udalarenak izan daitezke.
6. Memoria eta onetsitako gainerako dokumentuak jendaurrean jartzea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 85. artikularekin eta Tokiko Araudiaren testu bategina onartzen duen 781/86 Legearen 97. artikularekin bat etorrita. Erabaki hau behin betikotzat hartuko da ez bada erreklamaziorik aurkezten.
7. Eduardo Terroba Cabezón alkate-udalburu jauna gaitzea beharrezko dokumentu guztiak sina ditzan eta, hala badagokio, Oyón-Oiongo Udalari dagozkion ekintzak izenpetu ditzan.

Aldeko 6 (sei) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

Aurkako 4 (lau) boto: Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.

5. Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea

5.1 EUDELeK BJKN eta EAErekin sinatutako lankidetzak-hitzarmena, familia-etxebizitzatik kaleratzean kalteberatasun-ustekoak hautemateko.

Aurrekariak:

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin lankidetzak-hitzarmena, familia-etxebizitzatik kaleratzean kalteberatasun-ustekoak hautemateko. Helburua da gizarte-arloko neurriak hartu ahal izatea. Erantsita dago.
2. Hitzarmenaren helburua da jarduketa-protokoloa ezartzea etxebizitza ateratzeko izan daitezkeen prozeduretan ahalik eta azkarren jardun ahal izateko. Kasu horietan, Prozedura Zibilararen Legearen aldaketarekin bat, gizarte-zerbitzuei jakinaraziko zaie haiek esku hartzea beharko balitz, eta hala badagokio, egoerari erantzuteko.
3. Informazio Batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

1. Onestea Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenari atxikitzea, familia-etxebizitzatik kaleratzean kalteberatasun-ustekoak hautemateko. Helburua da gizarte-neurriak hartu ahal izatea.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

5.2. 2020ko Euskararen Nazioarteko Egunaren adierazpena. Euskara aurrerabidea da.

Eslava Guillena andreak 2020ko Euskararen Nazioarteko Eguneko adierazpena irakurri du “Euskara aurrerabidea da”; gaztelaniaz eta euskaraz transkribatu da.

Revitalicemos nuestra sociedad en euskera. La pandemia nos ha golpeado como jamás nadie hubiera podido pensar. Al igual que sus consecuencias. Nos ha emplazado a constatar nuestra verdadera medida, frente a frente, a todas las sociedades, a todas las estructuras, a todas y cada una de las personas. Ha puesto de manifiesto, sin la menor clemencia, algo que preferiríamos olvidar: somos vulnerables; estamos heridos.

Para afrontar el reto, hemos recurrido a la responsabilidad, hemos unido nuestras fuerzas. Porque sabíamos que esa era la única manera de hacerlo.

La comunidad de hablantes de euskera también ha sufrido la influencia de la pandemia, especialmente a nivel de uso. Y por grande que sea el compromiso y el trabajo realizado por las instituciones públicas, no hemos podido responderle como hubiéramos deseado.

Pero los y las euskaldunes no podemos hacer abstracción de un componente ineludible de ese inmenso y admirable esfuerzo social, de un componente que depende únicamente de nosotros y nosotras: debemos hacer frente en euskera a la crisis mundial; debemos recorrer en euskera el camino que ha de conducirnos desde las tinieblas a la luz; sanaremos en euskera, en euskera curaremos a nuestra sociedad; abrazaremos en euskera a toda la humanidad. Porque somos uno. Porque el euskera nos une al mundo.

Esa es la aportación que los y las euskaldunes —es decir, aquellos ciudadanos y ciudadanas del mundo que, en una u otra medida, vivimos en euskera— hacemos al desarrollo humano usando el euskera más, con más y en más ocasiones. He ahí el valor añadido que aportamos a la gestión social avanzada.

Adoptamos de manera individual, claro está, el compromiso de vivir cada vez más en euskera. Porque ese esfuerzo personal es el pilar fundamental de cualquier progreso, de manera muy especial en los procesos sociales más complejos, y el que conduce a la revitalización del euskera es exactamente eso: un proceso social complejo, con multitud de aristas y facetas.

Bien lo sabemos los y las euskaldunes de todo el mundo.

Sabemos, entre otras cosas, que el impulso que nos mueve a superar los obstáculos que en ocasiones se nos presentan para usar el euskera más, con más y en más ocasiones emana de una decisión personal.

Sabemos, entre otras cosas, que los y las euskaldunes formamos una comunidad de hablantes, y que en Euskaraldia el impulso que parte de la voluntad individual es el motor para superar los obstáculos que van surgiendo a nuestro alrededor a la hora de utilizar el euskera más, con más gente y en más ocasiones.

Pero sabemos también que nos es imprescindible agruparnos. Porque el vector que vincula entre sí al euskera y los y las euskaldunes se proyecta en un doble sentido: el euskera hace de nosotros un pueblo; la comunidad euskaldún hace del euskera una lengua de presente y de futuro.

Los más señalados avances del euskera han provenido siempre del mismo principio: de una estrecha relación entre compromiso personal y social; de la sólida decisión de responder en euskera a las necesidades de cada momento; de la labor de las instituciones y sociedad vascas y de cada uno de nosotros y nosotras en el empeño común de lograr que el euskera sirva de pavimento al camino hacia el futuro.

Euskaraldia nos ofrece de nuevo este año la ocasión y el instrumento necesario para hacer de la dificultad y la crisis una oportunidad. La edición del presente año llega, ciertamente, en un contexto complicado, y ello no hará sino acrecentar el valor del compromiso de todos y cada uno de nosotros y nosotras, incluido el de las administraciones e instituciones públicas.

En la edición del presente año, adquirirá especial valía la labor de todas aquellas personas dispuestas a ofrecer su euskera con entusiasmo y a aceptar de buen grado el euskera que se les ofrece. Este año será más decisivo que nunca cualquier gesto práctico de cercanía con el euskera, tanto si proviene de quienes pueden hablar euskera como de quienes, desde otras lenguas, desean contribuir a la difusión del euskera.

El esfuerzo por usar el euskera más, con más y en más ocasiones se revestirá este año de un especial significado: a nuestra decisión de superar la grave situación que atravesamos, todos y todas los vascohablantes y amigos del euskera le añadiremos la determinación de salir adelante en euskera.

En efecto, sabíamos ya que el futuro venía en euskera, que el futuro habla también en euskera, y este año hemos aprendido algo más: el euskera, necesario compañero de camino, nos ayuda en nuestro esfuerzo por superar las dificultades. Si nos hemos propuesto salir reforzados de la crisis, el euskera nos ofrece una excelente herramienta para ello.

Porque debemos revitalizar nuestra sociedad en euskera.

Porque debemos al mundo la voz del euskera.

Porque usar el euskera es nuestra manera de ser ciudadanos y ciudadanas del mundo.

Porque el euskera nos hace avanzar.

Gizartea euskaraz biziberritzea helburu. Inoiz inork pentsatuko ez zukeen eran jo gaitu gaitzak. Beste horrenbeste, gaitzaren ondorioek. Mundu osoa, gizarte guztiak, egitura guztiak, pertsona guztiok jarri gaitu geure benetako neurriaren aurrean, buruz buru. Kupidarik gabe utzi du agerian ahaztu nahi genukeen zerbait: zaurgarriak gara; zaurituta gaude.

Erantzukizunaren bidetik heldu diogu erronkari, denon indarrak batuz. Bai baitakigu ez dagoela beste irtenbiderik.

Euskararen hitzun elkarteak ere sufritu du pandemiaren eragina, bereziki erabilera mailan. Zentzu horretan, erakunde publikoen konpromisoa sendoa eta egindako lana handia izanagatik ere, ezin izan diogu nahi bezala erantzun.

Euskaldunok, baina, ezin dugu ahaztu badela funtsezko ekarpen bat, gizarte-ahalegin itzel eta miresgarri horren osagai ezinbestekoa eta geure esku soilik dagoena: euskaraz egin behar diogu aurre mundu mailako krisiari; euskaraz egin behar dugu ilunpetik argira eramango gaituen bidea; euskaraz sendatuko gara, euskaraz sendatuko dugu geure gizartea; euskaraz besarkatuko ditugu mundu osoko gizakiak. Bat garelako. Euskaraz bat mundu osoarekin.

Horixe da euskaldunok –neurri batean edo bestean euskaraz bizi garen munduko herritarrok, alegia– euskara gero eta gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiliz giza garapenari egiten diogun ekarria. Gizarte kudeaketa aurreratuari gaineratzen diogun balio erantsia.

Banaka heltzen diogu, jakina, euskaraz gero eta gehiago bizitzeko konpromisoari. Nahitaezko zutabea baita norberaren eginahal hori edozein aurrerabidetan, oso bereziki gizarte prozesu konplexuetan, eta horixe da euskara biziberritzea helburu duena ere: gizarte prozesu konplexu bat, ertz eta osagai ugari duena.

Ongi asko dakigu hori mundu osoko euskaldunok.

Badakigu, besteak beste, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko agertzen zaizkigun oztopoak gainditzera mugitzen gaituen bultzada norbere erabakia dela.

Badakigu, besteak beste, euskaldunok euskararen hiztun elkartea osatzen dugula, eta Euskaraldian norberaren erabakimenetik abiatzen dela euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzerakoan inguruan hainbatetan sortzen zaizkigun oztopoak gainditzeko bulkada.

Baina badakigu, era berean, ezinbestekoa dugula elkarrengana biltzen gaituen bulkada ere. Norabide biko bektorea baita euskara eta euskaldunok lotzen gaituena: euskarak herri egiten gaitu; euskal hiztunon komunitateak egiten du euskara orainaren eta etorkizunaren hizkuntza.

Bide horretatik heldu zaizkio beti euskarari aurrerapauso behinenak: norberaren eta gizartearen konpromisoak sendo uztartzetik; unean uneko beharrezanez euskaraz erantzuteko erabaki sendotik; etorkizunerako bidea euskaraz zolatzeko euskal instituzioek, gizarteak eta gutariko bakoitzak egindakotik.

Euskaraldiak eskaintzen digu aurrez berriz ere zailtasunak aukera bilakatzeko abagunea, krisia aukera bihurtzeko lanabesa. Ingurumari aldrebasean dator, ez bairik gabe, aurtengoa, eta horrek areagotu egingo du guztion eta bakoitzaren konpromisoaren balioa, administrazio eta erakunde publikoena barne.

Aurtengoan, balio berezi batez apainduko da ahoa bizi, belarria prest eta bihotza kartsu dugun guztion ekimena. Aurtengoan, inoiz baino erabakigarriagoa izango da euskararekiko gertutasunezko keinu praktikoro, euskal hiztunongandik zein euskararen zabalkundean erdaretatik lagundu nahi dutenengandik datorrela ere.

Esanahi berezi batez jantziko da aurrez, ezinbestez, euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko ahalegina: egokitu zaigun ataka larritik ateratzeko erabakiari, euskaraz ateratzearen ezinbestekotasuna erantsiko diogu euskal hiztun nahiz euskararen lagun orok.

Izan ere, bagenekien euskaraz zetoarela geroa, euskaraz ere mintzo dela etorkizuna, eta aurrez beste zerbait ikasi dugu: egoera zailetatik ateratzeko eginahalean lagungarri dugu euskara, bidelagun ezinbestekoa. Krisialditik sendoago ateratzea helburu dugun honetan, erabil dezagun euskara ere aurrera egiteko lanabes gisa.

Euskaraz biziberritu behar dugulako geure gizartea.

Euskararen ahotsa zor diogulako munduari.

Euskaraz garelako munduko herritar.

Euskara aurrerabidea delako.

Alkate jaunak atxikitzeke nahia dagoen galdetu du. Taldeak adierazpena atxikitzearen alde agertu dira.

6. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.

6.1 Mendebaldeko Saharan su-etenaren amaieraren aurrean erakundearen adierazpena.

Kontu eman da Mendebaldeko Saharan su-etenaren amaieraren aurrean erakundearen adierazpenari buruz; zinegotziei bidali zitzaizen eta Informazio Batzordean jorratu zen.

Adierazpena bozkatu da

Aldeko 7 (zazpi) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Aurkako 2 (bi) boto: Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Abstentzio 1 (bat): Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

Frías del Val and. (EH Bildu Oion): alde gaude, baina ez dela oso handinahia uste dugu.

Mendebaldeko Saharan su-etenaren amaieraren aurrean onetsitako erakundeen adierazpena transkribatu da. Horra hor:

2020ko azaroaren 13an, Marokoko Indar Armatuek nahita urratu zuten 1991tik indarrean dagoen Marokoko Erresumaren eta Fronte Polisarioaren arteko su-eten Akordioa.

Marokoko Erresumak Guerguerateko legez kanpoko pasabidera indar militarrek bidali zituen, duela lau astetik eremu horretan manifestazioak egiten ari ziren saharar herritarrak erreprimitzera.

Marokok 2001ean ireki zuen pasabide hori, Nazioarteko Zuzenbidea urratuz. Nazio Batuen Bake Akordioak (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarrek Marokoko harresi militarrean pasabideak irekitzea debekatzen dute.

Indar marokoarren erasoaldiak eta Fronte Polisarioak saharar populazio zibilaren defentsan emandako erantzun legítimoak harresian zehar hainbat liskar eragin ditu. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko Presidenteak, adierazpen baten bitartez amaitutzat eman du Fronte Polisarioak eta Marokoko Erresumak 1991n sinatutako su-eten konpromisoa.

Azken gertakarien aurrean Oyón-Oiongo Udalak, Sahara Euskadi Mugimenduarekin eta Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera:

- Berresten dugu zalantzarik gabeko elkartasuna diogula saharar herriaren eta haren legezko ordezkaririk Fronte Polisarioaren borrokari.
- Marokoko Erresumari EGOZTEN DIOGU 1991n Su-Etena apurtu izana, eta sortu den eta Magrebeko eskualde osora zabal daitekeen ezegonkortasunaren erantzukizuna.
- Minursori eta Nazio Batuei eremuan segurtasuna eta sahararren giza eskubideen zaintza berma dezatela eskatzen diegu; eta, besterik gabe, autodeterminazio-erreferendumen bidez, Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide bidezkoa eta behin betikoa susta dezatela.
- Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari Mendebaldeko Saharan gertatzen den guztiarengatik dituen erantzukizunak bere gain har ditzala ESKATZEN DIOGU; izan ere, Lurralde Ez-autonoma da, Marokok legez kanpo okupatua, NBERen agindupean, eta gatazkan dauden bi aldeak Genevako Hitzarmenaren sinatzaileak dira.
- Espainiako gobernuari Mendebaldeko Sahara “de iure” administratzen duen potentzia gisa duen erantzukizuna bere gain har dezala EXIJITZEN DIOGU; eta horren arabera joka dezala, autodeterminazio-erreferendumen antolaketa eta Saharako biztanleria zibilaren babesean parte aktiboa izanik.
- Sahara Euskadi Mugimenduak Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa babesteko deitzen dituen mobilizazioetan parte hartzera GONBIDATZEN ditugu euskal herritarrak.

6.2. 2021eko abenduaren 31n azkentzen den kreditu-kontuaren banku-kontratua.

Aurrekariak:

1. Espedientea abiaraztea kreditu-kontuaren urteko kontu-kontratua sinatzeko finantza-erakundearekin; helburua da hitzartutako diruzaintza operazioa, kobrantza eta ordainketen artean desfase iragankorrei aurre egitea. Gehienezko zenbatekoa: 500.000 (bostehun mila) euro. Abiarazteak berarekin dakar Oionen bulegoa irekita daukaten banku-erakundeak gonbidatzea. Eskaintzak erabilitako kapitalaren gaineko interes-tasa eta banku-komisioak adieraziko ditu. Eragiketa 2021eko abenduaren 31n bertan behera geldituko da.
2. Otsailaren 9ko Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauaren 56.1 artikuluan jasotakoa aplikatuko da: toki erakundeek urtebetetik beherako epeko diruzaintzako eragiketak itundu ahal izango dituzte era guztietako finantza erakundeekin euren ordainketa eta sarreraren mugaegunaren diferentzietatik sortzen diren aldi baterako likidezia mentsak estaltzeko, Toki Ogasunei buruzko uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 51. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.
3. Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 51. artikuluan jasotakoa aplikatuko da, arauan aurreikusitako baldintzetan eta erakunde eskudunek, Arabako Lurralde Historikoko udalerriek eta horien organismo autonomoek ezartzen dituzten xedapenen esparruaren barruan honakoak zehaztu ditzakete: b) Diruzaintza-eragiketak, edozein finantza-erakunderekin eta urtebeteko epea baino laburragoan, haien diruzaintzako beharrian iragankorrei erantzuteko.
4. Emandako epean honako eskaintza hauek proposatu dira:
 - a. Laboral Kutxa, irekiera-komisioa: % 0, interes-tasa: % 0ko urteko finkoa; erabili gabeko saldoaren komisioa: % 0,08 urtean (interesak hiru hilez behin sortuko dira).
 - b. Kutxabank, irekiera-komisioa: 0 %, interes-tasa: % 0ko urteko finkoa; erabili gabeko saldoaren komisioa: % 0,10 urtean (interesak hiru hilez behin sortuko dira).
 - c. laCaixa, irekiera-komisioa: 0 %, interes-tasa: % 0ko urteko finkoa; erabili gabeko saldoaren komisioa: % 0,06 urtean.
5. Kontratazio-mahaiak 2021eko abenduaren 4an honako proposamen hau egin zuen: Urteko kreditu-kontuaren banku-kontratua esleitzea laCaixari: irekiera-komisioa: 0 %, interes-tasa: % 0ko urteko finkoa; erabili gabeko saldoaren komisioa: % 0,06 urtean.

Hau erabaki da:

- 1) Urteko kreditu-kontuaren banku-kontratua esleitzea laCaixari: irekiera-komisioa: 0 %, interes-tasa: % 0ko urteko finkoa; erabili gabeko saldoaren komisioa: % 0,06 urtean.
- 2) Eduardo Terroba Cabezón alkate-udalburu jauna gaitzea beharrezko dokumentu guztiak sina ditzan.
- 3) Erabaki hau jakinaraztea Arabako Foru Aldundiari, Tokiko Administrazio eta Lurralde Oreka Sailari.

Aldeko 9 (bederatzi): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzuurrungaza (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia). Abstentzio 1 (bat): Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion),

6.3. Hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren arau-ekimenei buruzko plan arauemailea.

Aurrekariak:

- 1) Oyón-Oiongo Osoko Bilkurak 2018 ekitaldirako 2017ko abenduaren 20ko bilkuran eta 2019 ekitaldirako 2018ko azaroaren 14ko bilkuran eta 2020rako 2019ko azaroaren 13ko bilkuran ezarri nahi ziren udal-ordenantzen plan arauemaile bana onetsi zituen.
- 2) Urteko plan arauemailea onesten denean aurreikuspena egiten da bermatzeko, batetik, segurtasun juridikoaren eta gardentasunaren printzipioak eta, bestetik, xedapenak egitean partaidetza-eskubidea. Modu horretan herritarrek eta enpresek badakite zeri heldu behar dioten.
- 3) Oyón-Oiongo Udalaren plan arauemailean ezarri nahi diren udal-ordenantzak sartzen dira lehentasunen arabera hurrenkeran:
 - I. Trafiko eta ibiekiko lehentasun alderantzikatua duten eremuetan bideak arautzeko ordenantza.
 - II. Kutsadura akustikoa, zarata eta bibrazioak arautzeko ordenantza.
 - III. Aurretiko jakinarazpen eta erantzukizunpeko adierazpenaren mendeko obrak arautzeko udal-ordenantza.
- 4) I. ekimena ibiak, oinezkoen guneak, etab. erregulatzeko beharrezanean sartzen da.
- 5) II. ekimenak Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua aplikatzea lortu nahi du.
- 6) I. ekimena 39/2015 Legearen 69. artikuluan jasotakoa garatzeko beharrezanean sartzen da.
- 7) Informazio Batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2021 ekitaldirako ezarri nahi diren udal-ordenantzen plan arauemailea lehentasunen arabera hurrenkeran:
 - I. Trafiko eta ibiekiko lehentasun alderantzikatua duten eremuetan bideak arautzeko ordenantza.
 - II. Kutsadura akustikoa, zarata eta bibrazioak arautzeko ordenantza.
 - III. Aurretiko jakinarazpen eta erantzukizunpeko adierazpenaren mendeko obrak arautzeko udal-ordenantza.
- 2) Urteko plan arauemailean sartzea ordenantzen indarraldirako funtsezko baliozkotasun-baldintza da.

Aldeko 6 (sei) boto; Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).

4 (lau) abstentzio: Eva María Frías del Val (EH Bildu Oion), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Azkenengo puntua) Galde-eskeak

Alkate jn.: Partaidetza-mahaietako langileek jakinarazitakoaren arabera, zinegotzi guztiei adierazten dizuet mahaiak parte hartzeko irekita daudela.

Frías del Val and. (EH Bildu Oion): Bi galdera egin ditu:

- Noiz bidaliko dizkigute igerilekuko langileen kontratuak? Zer gertatzen da Gorrebusto eta Labrazan zuntz optikoarekin? Herritarrak abandonatuta sentitzen dira.
- Alkate jn.: gaur igorri dizkigute kontratuak eta datu pertsonalak kendu behar dira, bihar goizean zehar bidaliko dira. Zuntz optikoari buruzko galdera eta kezka ahaldu nagusiaren ordezkari helaraziko diot.

Inclán Gil jn. (PP) EIG: Alkatearen erabakiaren aurrean Talde Popularraren protesta sartzeko eskatzen dut; bilkuraren funtzionamendua aldatzeari buruzkoa. Halaber, idazkariari alkatearen erabakiaren legezko egoerei buruzko txostena eskatzen diogu “legezko eta adierazpenezko eskubideak eta *Popularren* udal-taldearen barne-antolakuntzaren autonomia urratzeagatik.

Idazkari jn.: Erabaki bat hartu baino lehen txostena egiteko agindua Alkatetzak eman edo Udalbatzako kideen heren batek eskatu behar du.

Ez da galdera gehiagorik egin.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:14an (bilkura 20:00etan hasi zen, CCXXIX urteko frimarioko hemeretzigarren egunean), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2020ko abenduaren 16an.

Udaleko idazkaria:

O. E. Alkatetza.